Sailak honakoa erantzun zigun: *“esa conveniencia lógicamente afecta al conjunto de pacientes independientemente de su edad; con el fin de hacer progresivo el proceso, y como ya se ha explicado, desde el pasado mes de julio todos los y las nuevos pacientes derivados a salud mental desde los centros de atención primaria de Cruces y Lutzana, sean adultos o niños, se han orientado al CSM de Barakaldo y al Centro Infanto-juvenil de Urban; en el caso de pacientes tratados en el CSM que antes lo hubieran sido en el MPSC, se está solicitando de forma progresiva el traslado de las historias clínicas. El proceso de transferencia del conjunto de pacientes a ambos centros se realizará a lo largo de los meses de noviembre y diciembre y conllevará el traslado de las historias clínicas. Asimismo, bajo la tutela de la Comisión de Valoración, Selección y Expurgo de Documentación Clínica del Departamento de Sanidad y Consumo se procederá a realizar los trámites necesarios para asegurar la custodia futura de las historias clínicas del pasivo que pueda conservarse en los locales que ocupa el MPSC”*.

Halaber, ondorengoa jakinarazi zigun: *“para asegurar una buena coordinación entre los profesionales de atención primaria de los centros de Cruces y Lutzana, de referencia para la población que ha estado acudiendo al Módulo, y los del CSM de Barakaldo, se ha iniciado una pauta de reuniones bimensuales en el Centro de Atención Primaria a las que acuden el psiquiatra jefe del CSM y la psiquiatra que atenderá a todos estos nuevos pacientes. Todos ellos nos han transmitido su satisfacción con el cambio”*.

Osasun zerbitzuak sistema publikoak berak ematearen aldeko arrazoiei gaineratu zien kontrakoa egiteak arretaren zatiketa ekarriko zuela.

4. Elkarteari jakitera eman zitzaizkion sailari igorritako bigarren informazio eskaeraren edukia eta sailak emandako erantzuna ere, egokitzat jotzen zuena alegatzeko helburuarekin.



Elkartek motibazio eta arrazoi falta argudiatu zuen, sailak hitzarmena hausteko hartutako erabakiaren kontra gora jotzeko aurkeztutako errekursoan egin zuen bezala (aipatu zuten Administrazioaren nahi bakarra zela hitzarmena ez luzatzea).

Orobat, honakoa ere alegatu zuen: *“durante los más de 30 años de existencia del Módulo, y los más de 20 años de vigencia del convenio y a pesar de los variados momentos difíciles por los que ha atravesado esta Asociación, fundamentalmente económicos, siempre se ha encontrado el modo de continuar y de negociar soluciones con el Departamento, como fue la ampliación del convenio en 2006 con el programa de ludopatías, y que supuso un alivio económico importante; o como creíamos iba a ser en 2011 con el programa de violencia de género, al que fuimos invitados por el Ayuntamiento de Barakaldo y Osakidetza comarca Ezkerraldea-Enkarterri”.*

Kexu ziren sailak negoziatzeko borondaterik izan ez zuelako eta modulua kontsultetatik eta iritzietatik baztertua izan zelako; gainera, azpimarratu zuten osasun arduradunekin elkarrizketak izateko zailtasunak izan zituztela eta ez zitzaizela lehenengo momentuan helarazi Barakaldoko osasun zentroen artean emandako informazioa, zerbitzuaren harrerari buruz eta erabakia oinarritzeko arrazoiari buruz.

Artapen psikiatrikoko ratioaren gaiari zegokionez, modulua ez zetorren bat sailak zenbakiak interpretatzeko moduaren inguruan. Haren ustetan, ez ziren sartu behar toxikomania unitateko fakultatiboak, unitate hori aparte zegoelako eta patologia horiek bakarrik artatzen zituelako; horregatik, OTI zeukaten 14 urtetik gorako pertsoneri zegokionez kontuan hartu beharreko fakultatibo kopurua 6,5ekoa izango zen; horren arabera, fakultatibo bakoitzeko pertsona kopurua 14.162koa izango zen, GMPSko 10.395eko pertsona kopurua baino handiagoa.

Ludopatiak artatzeko programari zegokionez, elkarteak adierazi zigun hori Osasun Sailaren proposamen batetik sortu zela 2006an, modulua ardura zedin lupopatiak jotako Bizkai osoko pertsonen artapen psikofarmakologikoaz edota psikoterapeutikoaz, bai aipatutako elkarteak berak bai Osakidetzak berak (OMZ eta ospitaleak) bidalitako pertsonak artatzeko; horrek berekin ekarri zuen hitzarmena handitzea; Administrazioak emandako argudioa honakoa zen: *“la atención a las ludopatías, como cualquier otro problema de salud mental, es proporcionada por la RSMB a través de sus centros de salud mental”*; horren kontra elkarteak honakoa alegatzen zuen: *“estaba diseñado para cubrir y centralizar, en un único centro, la atención de ludopatías, demanda planteada durante largo tiempo por la asociación Ekintza-Aluviz, al igual que se hace en el caso de las anorexias y bulimias, que cuentan con centros diferenciados y específicos de tratamiento y de seguimiento por así haberlo demandado las asociaciones de usuarios y familiares de estas patologías y por considerarse casos específicos dentro de la salud mental con sus propios protocolos de actuación”.*

Elkartea erantzun honegatik harritu zen: *“la respuesta del Departamento cuando, como hemos señalado, diversos profesionales de distintos CSM y hospitales nos han derivado directamente casos de ludopatía para tratamiento al Módulo, y ha sido*



*desde el Módulo desde donde se les ha puesto en contacto con la Asociación, para realizar un trabajo de atención integrado”.*

Nabarmendu zuten informazioa aldizka-aldizka koordinatzeko eta trukatzeko lanean honakoak galduko zirela: kasuz kasuko bilakaera, paziente bakoitzari buruzko jarraibide diagnostikoa zeregin terapeutikoetan orientatzeko, berehalako artapena eta presazko artapena, halakorik behar denean.

Genero indarkeriaren biktimak izandako emakumezkoak artatzeko programari zegokionez, Moduluak adierazi zigun Bilbon bertan (sailak udalerrri horrekin egin zuen konparazioa) *“existen tres Módulos de Atención Psicosocial que trabajan coordinadamente con Osakidetza, como lo ha hecho hasta ahora el Módulo de Cruces”*, eta jakitun zeuden horietariko batean gutxienez *“lleva programas de intervención con mujeres víctimas de maltrato subvencionados por la Dirección de Atención a las Víctimas de la Violencia de Género”*, euren kasuan bezala.

Salatu zuten, gainera, ez zutela inolako kontsulta edo aldaketarik jaso sailaren aldetik genero indarkeriaren biktimak izandako emakumezkoak artatzeko indarreko protokoloaren balizko aldaketa baten inguruan.

Kezkaturik eta arduraturik azaldu ziren kasuen trukea egiteko koordinazio faltagatik, sailaren aldetik ez baitzen kontakturik edo ohartarazpenik egin.

Honakoa gaineratu zuten: *“más de 1.500 casos que deberían iniciar tratamiento el 2 de enero en el CSM de adultos o de infantil”* erabaki dute artapena moduluan bertan jasotzen jarraitzea, moduluaren mantentzeari aurre egitea onartuz kontsulta bakoitzeko zenbateko ekonomiko baten ordainketaren bitartez. Baieztatu zuen, nahiz eta sailak 2012ko abuztutik Lehen Mailako Arretak kasuak Barakaldoko OMZra bideratzeko emandako agindua egon arren, 2012ko azaroan honakoa gertatu zela: *“además de las consultas habituales del mes, que no han descendido, han acudido para primera consulta 4 nuevos casos y se han producido 10 reinicios (casos atendidos anteriormente en este Módulo y dados de alta)”*.

5. 2006an Moduluak arauak betetzen ez zituzten edo jokabide arazoak zituzten haurren eta nerabeen artapen espezializaturako programa berria sortu zuen; Bizkaiko Foru Aldundiak urtero-urtero laguntzen zuen diruz. Era berean, 2008an etorkinei zuzendutako artapen psikosozialeko programa sortu zuen, BBK-k 2008an, 2009an eta 2010ean diruz lagundutakoa.
6. Hiru erabiltzailek beren kexa idatziak aurkeztu zituzten, funtsean moduluaren itxieraren kontrako jarrera azalduz.

### Kontsiderazioak





1. Administrazioak kexa espediente honetan (haren berri eman dugu 2 eta 3. aurrekarietan) eskainitako erantzunen azterketak ahalbidetzen du objektibatzea sailak *Gurutzetako Laguntza psikosozialeko modulu Elkartearekin* izenpetutako hitzarmena ez berritzeko erabakia ez dela inola ere arbitrarioa eta sailaren antolakuntza irizpideei erantzuten diela.

Ezkerraldeko egitura berrantolatzeko ondorio gisa, ikusi dugu Osakidetzak Gurutzeta, Lutzana, Errekaortu eta Burtzeña auzoetan (horiek guztiak moduluan artatzen ziren) bizi diren pertsonen esku jartzen dituela Bizkaiko gainerako pazienteei eskaintzen dizkien profil profesional eta laguntza barietate berberak.

Osasun Mentaleko eremuan, Zaballako osasun zentroan (Barakaldo) espazioak libratuz egin du, modu horretan Barakaldoko Osasun Mentaleko Zentrorako bideratutako azalera handituz; gainera, existitzen zen taldean profesional berriak sartu ditu eta Ezkerraldeko Haur eta Gazteen Osasun Mentaleko Zentroa ireki du (Urban HGOMZ).

Horrela bada, Administrazioaren zerbitzu baten berreskurapen kasu baten aurrean<sup>2</sup> gaude.

Osasun administrazioak, gainerako herri administrazioek bezala, zerbitzuak antolatzeko ahalmena dauka baliabideak interes orokorraren arabera aprobetxatu ahal izateko.

Herri administrazioek berrantolatzeko duten ahalmenaren barruan sartzen da Administrazio bakoitzari bere egitura eratzeke eta berrantolaketa aurrera eramateko bide ematen dion ahalmen multzoa, betiere Konstituzioak eta lege arruntek ezarritako mugen barruan (Konstituzioaren 103. artikulua eta Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 3. artikulua).

2. Kexa espediente honetan gure jarduketak bideratu dira aztertzeraz ea Osakidetzaren sare publikoak ematen duten arreta berria atzerapauso bat zen ala ez lortutako arreta eta artapen estandarretan; hartara, honako alderdi hauek aztertu dira besteak beste: artapen psikiatrikoaren ratioa, ludopatiak dituzten pertsonak artatzeko programa, genero indarkeriaren biktimak diren emakumezkoak artatzeko programa edo famili esku-hartzea.
  - 2.1. Artapen ratioei dagokienez, sailak eta moduluak emandako informazioa islatu dugu profil profesional desberdinak eta haien kopurua kontuan harturik, betiere Gurutzeta, Errekaortu, Burtzeña eta Lutzanako herritarrei artapena eskainiko dien unitate bakoitzean.

---

<sup>2</sup> Osasun Sailak osasun zerbitzuak ituntzeko oinarriak ezartzen dituen apirilaren 8ko 77/1997 Dekretua indarrean dago baina azterketa honen gaia den hitzarmena sinatu ondorengo da; hala eta guztiz ere, dekretu horren zazpigarren artikulua ezartzen du osasun itunak suntsitzeko arrazoiak izango dela Herri Administrazioen Kontratuei buruzko maiatzaren 18ko 13/1995 Legearen 168. artikulua ezarritakoak; horien artean dago, besteak beste, Administrazioak zerbitzua berreskuratzea.

	Psikiatria orokorra Barakaldoko OMZn	Toxikomaniak Barakaldoko OMZn	Urbaneko HGOMZ (*)	Gurutzetako modulu psikosoziala
Psikiatra kopurua	5	3	3,5 <sup>3</sup>	1,8 (%11, <14koen arreta)
Psikologo kopurua	2	1	3	1 (%11, <14koen arreta)
Erizain kopurua	2	2	0	0
Gizarte langileen kopurua	1	1	2	0
Laguntzaileen kopurua	2	1	1	1
Zentro burua (psikiatra)(**)		1	1	-

(\*) Haur eta gazteen arreta. Moduluaren kasuan, profesional berberak artatzen dituzte helduak (biztanleriaren %89) eta haurrak nahiz gazteak (%11). Profesional bakoitzaren ratioa kalkulatzeko, kontuan izango dugu banaketa hori.

(\*\*) Profesional hori sartu dugu taularen psikiatren kopuruan, haien lanaldiaren zati handi bat psikiatريان (kontsulta) erabiltzen dutelako; gainera, moduluan jarduten duten psikiatretariko batek ere beteko ditu zentroko burutza zereginak.

Moduluak artatu dituen eta gaur egungo egiturak artatutako dituen herritarrei dagozkien osasun txartelen kopuruaren inguruan Sailak emandako datuetatik abiatuz, profesional bakoitzak osasun txartelarekin artatu beharreko biztanle taula hau prestatu dugu:

	Psikiatria orokorra + toxikomaniak Barakaldoko OMZ (*)	Urbaneko HGOMZ (*)	Gurutzetako modulu psikosoziala	
			>14	<14
Biztanle kopurua (OTI kopurua)	92.052	30.240	25.903	3.205
Biztanleak psikiatra bakoitzeko	10.228	6.720	16.169,16	16.186,87
Biztanleak psikologo bakoitzeko	30.684	10.080	29.104,49	29.136,36
Biztanleak erizain bakoitzeko	23.013	0	-	-
Biztanleak gizarte langile bakoitzeko	46.026	15.120	-	-
Biztanleak laguntzaile bakoitzeko	30.684	30.240	29.104,49	29.136,36

(\*) Moduluarekin itundutako prestazioen katalogoan toxikomaniaren artapena ere sartzen zen.

(\*\*) 1,602 (1,8 psikiatren %89) eta 0,89 (psikologo 1en %89) >14 biztanleentzat; 0,198 (1,8 psikiatren %11) eta 0,11 (psikologo 1en %11) <14 biztanleentzat

Emaitza hauek ikusita, eszenatoki berriak berekin ekarriko luke artapen psikiatrikoaren artapen ratioaren hobekuntza.

<sup>3</sup> Informazioaren eguneraketa 2012ko maiatzaren 27an: beste psikiatra bat lanaldi erdian Urbaneko Haur eta Gazteen Osasun Mentaleko Zentroan.



Zerbitzuaren antolaketa berriarekin, artapen psikologikoak ratio hobea izango luke haur eta gazteen eremuan eta pixka bat okertuko litzateke helduen artapenean; gauzak horrela, sailak aurreikus lezake profil horretako errefortzu bat sartzea; izan ere, ratioa aurreikuspen optimotik<sup>4</sup> urrun dago bi eszenatokietan.

Taldean diziplina aniztasunari dagokionez, hobekuntza dago. Gaixorik dauden edo arazo mentalak dituzten pertsonak artatzeko eredu komunitarioaren garapenari begira, beharrezkoa da osasun mentaleko zentroetan askotariko diziplinetako taldeak ezartzea, betiere [Osasunaren Nazio Sistemaren Osasun Mentaleko Estrategiaren 4. helburu orokorraren 11. gomendioak](#) ezartzen duen bezala. Ildo horri jarraituz, [EAEko Osasun Mentalaren 2010eko Estrategiak](#) honakoa ezartzen du: *“diziplina askotako taldeak arazo mentalak artatzeko eredu komunitarioaren oinarritzko azpiegitura dira. Taldearen barruan gutxienez psikiatrak, psikologo klinikoak eta osasun mentalean espezializaturiko erizaintzako eta gizarte laneko profesionalak egongo dira, bai eta osasun mentaleko profesionalak eta beharrezko laguntza administratibo eta logistikoa ere; horiek guztiek osatzen dute oinarritzko taldea”* (11.4. ildo estrategikoa).

Azken helburua da laguntzaren jarraitasuna bermatzea eta artapen integrala eskaintzea, osasunaren izaera bio-psikosoziala kontuan hartuz.

Izan ere, [Osasunaren Nazio Sistemaren Osasun Mentaleko Estrategiaren ebaluazioak](#) honakoa ezartzen du: *“la proporción de psiquiatras en relación con la población general por si mismo no es un indicador de la suficiencia o calidad de los recursos humanos en salud mental; esta cifra debe ser complementada con la de psicólogos, enfermeros, trabajadores sociales y otros profesionales de los equipos de salud mental<sup>5</sup> y valorada en el contexto asistencial correspondiente”*.

Horrela bada, eszenatoki berrian askotariko diziplinen inguruan ezarritakoaz gainera, garrantzitsua izango da sailak aurreratutako aurreikuspenak gauzatzea ospitaleratzearen alternatibak diren eskualde baliabideetan (eguneko ospitaleak eta Asertziozko Tratamendu Talde Komunitarioa) gizarte langilea, lanbide terapeuta bat eta psikologo kliniko bat egon daitezen.

- 2.2 Ludopatia daukaten pertsonak artatzeari dagokionez, sailak jarrera proaktibo bat izateko konpromisoa hartu du, Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko profesionalak ludopatiak artatzen dituen *Ekintza ALUVIZ* elkartearekin koordinatzeari begira. Sailak zehaztu duen bezala, elkarteko psikologoek eta Osakidetzako psikologoek arteko komunikazio bideak berrikusi dira eta hobekuntza formulak adostu dira. Horrela, elkarteko psikologoek pazienteak psikiatrara bideratzeko aukera adostu da, aldeztu aurretik famili medikuaren eskutik igaro gabe. Horren guztiaren inguruan beharrezko jarraipena egin beharko da erakundearen aldetik.

<sup>4</sup> [Policies and practices for mental health in Europe](#) - meeting the challenges. World Health Organization. 2008. European Commission.

<sup>5</sup> Lanbide terapeutak, hezitzaileak eta laguntza komunitarioko baliabideetan beharrezkoak diren bestelako profesionalak.



Patologia mota hauek artatzeko erreferentzi unitate baten galera (modulua) arintzeko asmoz, komenigarria izan daiteke Osasun Sailak artapen mota hau zentralizatzea bere egituraren barruan.

- 2.3 Genero indarkeriaren biktimak diren emakumezkoak artatzeari dagokionez, Sailak protokolo berria ezartzeko konpromisoa hartu du; horretan Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea sartuko da eta haren kontsulta Barakaldoko OMZn egingo da. Sailak adierazitakoarekin bat etorriz, horrek ahalbidetzen du lehen arretako profesionalek eta udaleko gizarte langileek kontsulta hori zuzenean egin ahal izatea. Ildo berari jarraituz, aipatu du langile horiek Urbaneko Haur eta Gazteen Osasun Mentaleko zentrorako zuzeneko sarbidea izango dutela. Halaber, aipatu digute protokolo berriaren barruan, hobekuntza bezala, sartzen dela harrera pisuetan bizi diren emakumezkoak artatzeko koordinazio sozio-sanitarioa.

Aurreko kasuan bezala, beharrezko jarraipena egin behar izango dugu, aurreikuspen horiek gauzatu diren ala ez egiaztatu ahal izateko.

- 2.4 Modulua ixteko aukera handiagoa da osasun administrazioaren finantzazio falta delako (finantzazio osoaren %80 gutxi gorabehera); horrek eragin liezaieke moduluan beste erakunde batzuen finantziazioarekin aurrera eramandako beste programa batzuei, hala nola arauak errespetatzen ez dituzten edo jokabide arazoak dituzten haur eta nerabeen artapen espezializatuaren programari edo etorkinen laguntza psikosozial espezializatuaren programari (5. aurrekaria).

Kolektibo horiek arreta berezia behar dute euren ahultasun egoeraren ondorioz. Arreta horrek hobekuntza premiak ditu; Arartekoak beharizan horiek aipatu ditu azterlan honetan: [Arartekoaren ikuspegitik EAEko haur, nerabe, gazte eta adinekoen osasun mentalaren artapenera egindako hurbilketa: erronkak eta aukerak.](#)

Moduluak kolektibo horiek artatzen dituen eta haren ibilbide orokorra kontuan harturik (gai hau hurrengo atalean jorratuko dugu), komenigarria izan daiteke adierazitako ildoan dauden gabeziak gainditzera bideratu beharreko neurriak bultzatzea eta horretan moduluaren gisako gizarte erakundearen laguntza izatea hitzarmen edo diru-laguntzen formulak erabiliz.

- 2.5 Erakunde honek behin baino gehiagotan adierazi du familiarekin koordinatzeko bideak jorratzeko premia dagoela, prozesu terapeutikoan eta integrazioan oinarritako eragilea izan daitekeelako; halaber, aipatu du familiari ematen zaion informazioa hobetu behar dela, bai eta behar duen laguntza soziala eta psikologikoa ere.

Ez dago osagaririk ez arrastorik ere era objektiboan adierazteko eszenatoki berrian familiak prozesu terapeutikoan daukan zeregina murriztuko dela.

- 2.6 Gurutzetako Modulu Psikosozialari egokitu zaion laguntzaren eragin eremuak bere barnean hartu ditu Gurutzeta, Errekaortu, Lutzana eta Burtzeña auzoetako biztanleak. Salbuespen gisa beste gune batzuetako pazienteak ere hartu ditu, lehen arretak edo osasun mentaleko sareak horrela bideratuta.

Paziente hauek irisgarritasuna galduko dute Barakaldora lekualdatu behar izango direlako; hala eta guztiz ere, egoera hori nahiko arintzen da metro geltokia dagoelako eta ibilbidea 2 minutukoa delako, erantsitako mapan ikus daitekeen moduan:



Moduluak artapena alde aurretiko hitzordurik gabe ematea (ateak zabalik izateko dinamika baten barruan) berezkoa balioa da. Dinamika horiek posible izaten dira artatzen den biztanle dimentsioa urria denean. Osakidetzak lortutako dimentsioak eta artatzen duen biztanle kopuruak ekarri dute artapena kudeatzeko mekanismoak ezarri beharra, baliabideak optimizatu nahian, esate baterako alde aurretiko hitzorduarena.

Horrek, hala ere, ez du arriskuan jartzen artapen egoki bat; izan ere, jakinarazi dugutenez, Barakaldoko Osasun Mentaleko Zentroak presazko eskaerak artatzen ditu 24-48 orduetan eta gehienez ere astebetean, kontsulta lehentasunezkoa bada. Larrialdi dagokienez, artapen psikiatrikoa berehalakoan ematen da zentroan bertan (goizeko ordutegian) edo Gurutzetako ospitalean (ordutegi horretatik kanpo).

Herritarrek ezinbestean onartu behar dituzte alde aurretiko hitzorduaren gisako mekanismoen aplikazioak edo artapenaren kokapenaren aldaketak dakartzaten eragozpenak, betiere osasun publikoak jarraitu beharreko unibertsaltasun, berdintasun, elkartasun eta doakotasun printzipioen ordain gisa.

3. Gurutzetako Laguntza psikosozialeko moduluak 1979an sortu zen Gurutzeko Santa Anako Gaixo Alkoholikoen Senideen Elkartearen eskutik; 1995etik erakunde horri "Gurutzetako Laguntza Psikosozialeko Modulu Elkarte" irizten zaio.

1979an bere laguntza jarduerari ekin zion osasun mentalaren eremuan, lana modu boluntarioan eta altruistan betetzen zuten profesionalen eskutik, bai eta inguruko gizarte zerbitzuen eta auzokideen laguntzaz ere.

Barakaldoko Udalak hasiera batetik lagundu zaion baliabide soziosanitario honi, kokatzeko lokal batzuk lagaz; horren ondoren, 1982an gaur egun oraindik ere betetzen dituen lokalak utzi zizkion (Inmaculada kalea, 21-behea) eta jarduerari eusteko laguntza eman zuen, berritze lanak finantzatu zituen eta abar.





Hasiera batetik, moduluak finantzazioa lortzeko laguntza modalitate diferenteak jaso ditu Eusko Jaurlaritzaren sail desberdinetatik.

1987ko abenduaren 16an, Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Sailaren eta Gurutzetako Osasun Mentalaren Modulu Psikosozialaren arteko hitzarmena izenpetu zen toxikomanien arloan laguntza zerbitzuak emateko; hitzarmen horren xedea zen toxikomanien arloko laguntza ematea orduan indarrean zegoen Gurutzetako azpieskualdearen esparruan erroldaturik zeuden edo bizi ziren pertsona guztiei.

1990ko apirilaren 3an Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren eta Barakaldoko Gurutzetako Modulu Psikosozialaren arteko hitzarmena izenpetu zen osasun mentaleko programari zegokion osasun artapena emateko. Hitzarmen horren bigarren adierazpenarekin bat etorriz, *“moduluak osasun problematika bat artatzeko zeregina garatzen du biztanle kopuru garrantzitsua daukan baina osasun azpiegitura nahikoa falta duen inguru batean, ukitutako biztanleen premiak estaltzeko”*.

Bigarren ezarpenean jasotzen du bere jarduketa eremua San Eloiko sektorea eta Gurutzetako, Errekaortuko eta Lutxanako oinarrizko eremua izango dela; une hartan, artatzeko moduko biztanleria guztira 35.355 pertsonakoa zen<sup>6</sup>.

2003ko irailaren 1ean eranskin bat ezarri zitzaion 1990eko apirilaren 3ko hitzarmenari; helburua izan zen indarreko hitzarmena egokitzea hasierako hitzarmenean jasotzen ez ziren zerbitzu itunduak, laguntza emateko baldintzak eta kalitate adierazleak definituz.

2006ko ekainaren 16an beste eranskin bat izenpetu zen, hitzarmena handitzeko eta haren barnean ludopatiek ukitutako pazienteen diagnostikoa eta tratamendu klinikoa sartzeko.

Eranskin horretan itundutako prestazioei buruzko atalean honakoa adierazten zen: *“itundutako zentroak haur, gazte eta helduen osasun mentaleko patologien laguntza ambulatorioaren modalitatean sartzan diren zerbitzuak emango ditu; horrela, moduluan tratatzeko moduko kasuak eta haien tipologia osasun mentaleko arazoak eta patologiak izango dira, horien barruan toxikomaniekin eta alkoholismoarekin zerikusia duten arazoak sartuta”*.

2006an Moduluak arauak betetzen ez zituzten edo jokabide arazoak zituzten haurren eta nerabeen artapen espezializaturako programa berria sortu zuen; Bizkaiko Foru Aldundiak urtero-urtero laguntzen zuen diruz. Era berean, 2008an etorkinei zuzendutako artapen psikosozialeko programa sortu zuen, BBK-k 2008an, 2009an eta 2010ean diruz lagundutakoa.

2011ko ekainaren 9an moduluak Osakidetzako Ezkerraldea-Enkarterri eskualdearen, Gurutzetako Modulu Psikosozialaren Elkartearen eta Barakaldoko

<sup>6</sup> Gaur egun biztanleen 2013-05-28ko udal erroldaren arabera, Gurutzeta, Burtzeña, Lutxana eta Errekaortuko biztanle kopurua 29.054 pertsonakoa da.



Udalaren arteko lankidetzaren protokoloa izenpetu zuen genero indarkeriako eta etxeko bortizkeriaren kasuak kudeatzeko Barakaldon.

Esandako guztitik eta Arartekoak osasun mentaleko eremuko elkarrekin, Osakidetzako osasun mentaleko sareko profesionalekin eta erabiltzaileekin egindako kontrastetik honako hau ondorioztatzen da:

- Modulua auzoetako gizarte sarean integratutako baliabide sozio-sanitarioa dela.
- Laguntza zereginen 34 urteko ibilbide baten abala duela eta lana konpromisoaz, arduraz eta profesionaltasunez bete dela.
- Urte horietan guztietan laguntza zeregin horri esker ordeztu ahal izan dela ukitutako biztanleriaren premiak estaltzeko behar bestekoa ez zen osasun azpiegitura baten gabezia; horrenbestez, osasun administrazioari balio handi-handiko ekarpena egin zaio.
- Denbora tarte honetan euskal herri administrazioen onarpen eta laguntza merezi izan duela bere hiru jarduketan eremuetan (autonomikoa, forala eta tokian tokikoa).

Horrek guztiak iradokitzen digu itzaroteko modukoa zela osasun administrazioak zerbitzua berreskuratzeko ekimen eta prozesuan Gurutzetako Laguntza psikosozialeko moduluaren Elkarrekin ordezkariaren partaidetza handiagoa bideratzea, elkarrekin solaskidetzaren zainduz, berak eskatutako elkarrekin lehenetsiz eta informazio zehatz, oso eta lehenetsiz bermatuz; alabaina, baldintza horiek, gure ustetan, ez dira bete, eskura daukagun informazioaren arabera.

4. *Euskal Osasun Zerbitzua-Osakidetzaren eta Gurutzetako Modulu Psikosozialaren artean osasun mentaleko programari dagokion osasun artapena emateko hitzarmena*, arestian aipatu duguna, izenpetua izan zen Osasunari buruzko Lege Orokorren 90. artikulua (apirilaren 25eko 14/1986 Legea) eta Euskal Osasun Zerbitzua-Osakidetzari buruzko Legearen 23. artikulua (maiatzaren 19ko 10/1983 Legea) ezarritakoaren itzalpean.

Horren ondoren, Euskadiko Osasun Antolamenduari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 30. artikulua aintzat hartu zituen osasun zerbitzuak emateko erakunde pribatuekiko erlazio juridiko horiek.

Gauzak horrela, osasun laguntza emateko itun baten aurrean gaude, alderdien eskubide eta betebeharren klausulen bitartez egituratzen dena; itunaren helburua da ukitutako biztanleriaren premiak estaltzeko osasun azpiegitura nahiko baten gabezia estaltzea.

Hitzarmenaren hamaikagarren ezarpenari jarraituz, hasiera batean urtebeterako (1990eko urtarrilaren 1etik 1990eko abenduaren 31ra bitartean) izenpetutako kontratuaren indarraldia urte naturalen arabera luzatzen zen, alderdien batek gutxienez hiru hilabete lehenagoa salatu ezean gutun egiaztatu bitartez.





Hitzarmenaren gehigarri gisa sinatutako azken bi tresnek (2003ko irailaren 1eko eranskina eta 2006ko ekainaren 16ko eranskina) ez zuten inolako aldaketarik ezarri hamaikagarren ezarpenean jasotako luzapen araubideari buruz.

Ezarpen hori dela bide, Osasun eta Kontsumo Sailak hitzarmena salatu zuen 2012ko uztailaren 19an. Egiaztaturik geratzen da, beraz, gutxienez hiru hilabeteko aurrerapenarekin egin zuela.

Moduluak argudiatutako aurrerapen faltari dagokionez (Sailak 2012ko uztailaren 19an zuzendutako gutunean ez zen errekurtsio oharrik agertzen), Administrazioaren esku dagoen espedientean egiaztaturik dago jakinarazpena hartua izan dela eta moduluak sailari bidalitako komunikazioa (irailaren 17koa) jaso izan dela; komunikazio horretan agertzen da salaketa gutxienez hiru hilabeteko aurrerapenarekin ezagutu zela. Horrenbestez, Herri Administrazioetako Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 58.3. artikulua jasotako ezarpena aplikatu beharra dago; izan ere, bertan honako hauxe ezartzen da: *"las notificaciones que conteniendo el texto íntegro del acto omitiesen alguno de los demás requisitos previstos en el apartado anterior surtirán efecto a partir de la fecha en que el interesado realice actuaciones que supongan el conocimiento del contenido y alcance de la resolución o acto objeto de la notificación o resolución, o interponga cualquier recurso que proceda"*.

Errekurtsioa jartzeko epea bat ezartzeak (moduluak 2012ko azaroaren 7an eskatutakoa) ez du adierazi nahi defentsa gabeziarik egon denik edo kalte konponezina egin zaienik bidezko eskubide eta interesei.

5. Egiaztaturik geratu da hitzarmena indarrean egon den urte hauetan guztietan moduluak integraturik jardun duela Osakidetzako Osasun Mentaleko Sarearen barruan. Horrek esan nahi du OMSk zehaztutako jarraibideak bete direla datuak erregistratzean, errezeta ofizialak erabiltzean eta azterketak egiteko txartelak ematean; era berean, moduluaren jarduera Euskal Osasun Zerbitzuaren jarduera memoriatan jaso da eta OMSko azterlan eta lan programetan parte hartu du.

Hitzarmenaren hamargarren ezarpenarekin bat etorriz, *"Laguntza Zentroak konpromisoa hartzen du Euskal Osasun Zerbitzua-Osakidetzak aipua jasoko duen errotulu edo plaka bat jartzeko eraikinaren kanpoaldean, jendaurrean, modu egokian ikusia izateko moduan"*.

Hurrengo argazkiak berresten du moduluak ezarpen hori bete zuela.

Horri guztiari moduluaren profesionalen zeregin eta jardun egokia gehitu behar zaio; gauzak horrela, inguruko biztanleengan konfiantza sortzen jakin dute eta hori balio handia da osasun mentalaren gisako eremu batean, arlo horretan aliantza terapeutikoa giltzarria delako pazientearen bilakaerari begira.





Herritarrek moduluaren balizko itxieraren aurrean izan duten erreakzioa argia eta sendoa izan da (3.5. aurrekaria). Itxieraren kontra bildutako sinadura kopuruak, herritarren elkarretaratze eta manifestazioek (2012ko uztailaren 26koa, urriaren 10ekoa, urriaren 17koa, abenduaren 12koa eta abenduaren 19koa; 2013ko martxoaren 13koa, martxoaren 20koa eta martxoaren 27koa) eta ehunka elkarteren laguntza gutunek argi erakusten dute moduluak herritarren artean sorrarazten duen lotura eta babesa.

Barakaldoko Udalak ere adierazi du babes hori bi aldiz:

- 2012ko uztailaren 26ko osoko bilkuran; udalbatzak bilkura horretan aho batez onetsi zuen herritarren eskariak jasotzen zituen mozio bat.
- 2013ko martxoaren 27ko bilkuran; bilkura horretan udalbatzak aho batez onetsi zuen mozio bat, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailari moduluarekiko lankidetzaren hitzarmen berria izenpetzea eskatzeko zentroaren jardura finantzatzuz eta pazienteen artapenean doakotasuna bermatuz; sailari eskatu zitzaion lehen arretako medikuei agintzeko pazienteak modulu horretara bidera zitzaten. Era berean, moduluaren aldarrikapenei babesa eman zitzaien.

Horrela bada, herritarrengandik hurbilen dagoen administrazio organoak ere argi eta garbi egin zuen moduluaren alde.

Esandako guztia kontuan harturik, egokitzat jo zitekeen osasun administrazioak herritarren eta pazienteen partaidetza sustatzeko eta udal korporazioaren erabakien prozesuan inplikatzeko neurriak hartu izana.

Ilido berari jarraituz, egokia izango zen herritarrekiko eta udalarekiko komunikazio eta informazio bide iraunkorrak ezarri izana, aldaketak ekarriko zituen ondorio guztien berri emango zela bermatzeko asmoz.

Osasun publikoaren kudeaketa egokiro zuzentzeko printzipioek gobernu onaren kodearen oinarriko osagaiak jasotzen dituzte euskal osasun publikoari begira; hartara, helburua da, besteak beste, gizarte zibilaren eta profesionalen partaidetza sustatzea osasun erakundearen gobernuan.

Horrela bada, Aholkulari Kontseiluak ezarritako [Osakidetzaren gobernu eta kudeaketa onerako erakunde eta antolakuntza gomendioei](#) men egin behar zaie.

Osasunaren gobernu onean aurrera jarraitzeko planteamendu estrategikoen oinarriak ondorengoak dira: *"funtsezko balioak (giza eskubideak, legeak betetzea, demokrazia), osasun publikoa gidatzen duten printzipioak (unibertsaltasuna, berdintasuna, elkartasuna) eta gobernu onari dagozkion ezaugarriak (berri ematea, gardentasuna, erantzukizuna, partaidetza, eraginkortasuna, kalitatea, segurtasuna eta herritarren premiei, eskariei eta itxaropenei erantzutea)"*

Planteamendu estrategiko horiek islatzeko hamar konpromisoen artean bi nabarmendu behar dira:





*2.1. Herritarren eta pazienteen premiei, eskariei eta lehentasunei kalitate, eraginkortasun, eragingarritasun eta berdintasun handiagoarekin erantzutea, osasuna planifikatuz, zuzenduz eta kudeatuz herritarrak eta pazienteak benetako jabeak, hartzaileak eta epaileak direla pentsaturik.*

*2.8. Prozedurak ezartzea osasun publikoaren maila guztietan erabakien berri emateko, erabakiak gardenak izateko, kontsultara zabalik egoteko eta partaidetza zibila, politikoa eta adituena bideratzeko.*

Euskal osasun publikoak berak kudeaketa jardun egokietarako proposatutako praktika onen artean, honakoak nabarmendu behar ditugu:

- *Erabakien publizitatea, justifikazioa eta azalpena; erabaki garrantzitsuei dagokienez, txosten publikoak prestatu dira, herritarren eta adituen kontsultara zabalduak.*
- *Pazienteei modu negatiboan eragin diezaieketen gatazkak prebenitzea, aldeak arbitraje formulen pean jarriz.*

Euskal osasun publikoaren gobernu onerako bilatu beharreko herritarren partaidetzak berekin dakar pazienteak eta biztanleak euskal osasun publikoaren erdigunean jartzea; hala, gaixoen, zaintzaileen eta, oro har, herritarren premiak, eskariak eta lehentasunak identifikatzeko tresnak modu proaktiboan sendotu behar dira eta zerbitzuekiko asebetetze maila monitorizatu, informazio hori gizartearen esku jarriz ahalik eta gardentasunik handienarekin.

Osakidetzaren gobernu eta kudeaketa onerako gomendioen artean agertzen da aldizka-aldizka modu sistematikoan iritzi inkestak egitea erabilizaile eta zerbitzu mota desberdinei zuzenduta, betiere zerbitzu horien eta laguntza prozesuen diseinuak pazienteak eta haren zaintzaileak elementu guztietan (egokitzapena, informazioa, erosotasuna eta abar) kontuan hartuko dituela bermatzeko; horrenbestez, egondako herritarren adierazpide zibiko argia eta ugariaren aurrean, gomendagarria izango zen partaidetza eta informaziorako bide egonkorak ezarri izana.

Azkenik, zehaztu beharra dago, 8.6. gomendioarekin bat etorriz, gobernu egokia aldeztu duen mekanismo gisa herritarren partaidetzak izan behar duela partaidetzarako bide arautua, eskari, ekimen eta esku-hartze eskubideen erregulaziora laguntzeko; era berean, sektorearekiko solaskidetzak sustatu eta bide berriak bultzatu behar dira, pazienteen, zaintzaileen eta elkarrean partaidetza bideratzeko. Horrek ahalbidetzen digu hirugarren kontsiderazioaren azken paragrafoan adierazitakoa azpimarratzea, betiere *Gurutzetako Laguntza psikosozialeko moduluaren Elkarrean* beharrezko partaidetzari dagokionez.

6. Administrazioak zerbitzua hartzeko, alde aurretik moduluarekiko lankidetzak eta komunikazio marko bat ezarri behar zen, pazienteen informazio klinikoaren transferentzia zuzen eta berme guztiekien egiteko.

Moduluko profesionalak lortutako pazienteekiko lotura terapeutikoa ez da oztopo bat izan behar arrazoizko epe batean sare publikoko profesionalak ere gauza bera





lor dezaten; eta hori hala izango da, baldin eta pazienteek Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko profesionalekin duten asebetetze mailaren inguruan egindako inkestak kontuan hartzen baditugu (2. aurrekaria).

Oso garrantzitsua da, gainera, aldaketaren ondorioz laguntza ez etetea eta artapenarekin jarraitzea (modulura joateari uzten dioten baina Barakaldoko Osasun Mentaleko Zentrora bertaratzen ez diren pazienteak)<sup>7</sup>; horretarako, beharrezkoa izango da modulua lankidetzara eta osasun administrazioak bere mekanismoak abian jartzea (asertziozko tratamendu talde komunitarioen, gizarte langileen eta abarren inplikazioa...).

### Ondorioak eta gomendioak

1. Osasun eta Kontsumo Sailak *Gurutzetako Laguntza psikosozialeko modulu Elkartearekin* izenpetutako hitzarmena ez berritzeko eta erakunde horrek eskaintzen zuen zerbitzua bere gain hartzeko hartutako erabakia arrazoiturik dago eta egitura antolatzeko, planifikatzeko eta kudeatzeko irizpideei erantzuten die; irizpide horiek islaturik daude [EAEko Osasun Mentalaren 2010eko Estrategian](#) ezarritako jarduketara ildotzen.
2. Egituraketa berriarekin, Gurutzetako Laguntza psikosozialeko modulua Elkarteak artatzen zituen herritarrek (Gurutzeta, Burtzeña, Lutxana eta Errekaortuko biztanleak) Bizkaiko gainerako herritarrei eskaintzen zaien laguntza eskaintza bera izango dute (programa psikosozial zehatzak; psikiatria, psikologia, erizaintza eta gizarte laneko diziplina askotako taldeak; historia kliniko informatizatua; lehen arretaren eta osasun mentalaren arteko kontsulta programak; ospitaleratzearen alternatibak eta abar).
3. Oro har, Osakidetzako sare publikoak ematen duten artapen berria (ondoriozko kokapen berriarekin eta zerbitzuaren antolakuntza berriarekin) ez da atzerapauso bat gizarte erakundeak lortutako artapen estandarretan eta ez dago murrizketarik hartzaileak artatzeko kalitatean.

Hala eta guztiz ere, espediente honen tramitazioan azertu ditugun alderdi batzuek, zalantzak sor ditzaketenek, gure osasun administrazioaren konpromisoa ahalbidetu dute planteatzen den eszenatoki berriari begira:

- Ludopatiak artatzen dituen *Ekintza-Aluviz* elkartearekiko koordinazioari dagokionez, jarrera proaktiboa; elkarte horretarako psikologoek pazienteak sare publikoko psikiatriara zuzenean bideratzeko aukera; komunikazio bideen funtzionamenduaren berrikuspena eta adostu beharreko hobekuntza formulak hartzea.

<sup>7</sup> Berriki moduluak emandako datuen arabera, 742 pertsonak erabaki dute modulura joaten jarraitzea alde aurretik ordainduz; aitzitik, beste 104 pertsona ez doaz ez modulua kontsultara ez eta Barakaldoko Osasun Mentaleko Zentrora; hori kezkatzeko moduko arrazoia da.



Edozein kasutan ere, patologia mota hauek artatzeko erreferentzi unitate baten galera (modulua) arintzeko asmoz, komenigarria izan daiteke Osasun Sailak artapen mota hau zentralizatzea bere egituraren barruan.

- Genero indarkeriaren biktimak diren emakumezkoak artatzeko protokolo berria ezartzea lehen arretako profesionalek eta udaleko gizarte langileek Barakaldoko Osasun Zentroaren eta Urbaneko Haur eta Gazteen Osasun Mentaleko Zentroaren kontsultetan zuzeneko sarbidea izan dezaten; era berean, harrera pisuetan bizi diren emakumezkoak artatzeko koordinazio soziosanitarioa.
- Errefortzuak ezartzea: gizarte langile bat, lanbide terapeuta bat eta psikologo kliniko bat, ospitaleratzearen alternatibak diren eskualde baliabideetan (eguneko ospitaleak eta Asertziozko Tratamendu Talde Komunitarioa).

Zehaztu beharra dago, sare publikoak zerbitzua hartzean, honako alderdi hauetan hobekuntza ikusi genuela: taldeen askotariko diziplinen arloan, heldu, haur eta gazteen artapen psikiatrikoaren artapenaren ratioan eta haur eta gazteen artapen artapenean ere.

Moduluaren aldean, helduen artapen psikologikoaren ratioak okertze txiki-txiki bat izango luke egituraketa berriarekin; horri, gainera, gehitu behar zaio bi egoeretan (moduluaren eta sare publikoaren egoerak) optimotzat har daitekeen neurritik urrun dagoela. Horrenbestez, gomendagarria izango litzateke errefortzu bat ezartzea osasun profil mota honetan.

4. Gurutzetako Laguntza psikosozialeko moduluak berekin dakarren gizarte ekimena gure herri administrazioen aldetiko onarpen zabala merezi du; izan ere, proiektu aitzindaria izan da premia soziosanitarioak artatzeko zereginean eta ikuspegi komunitario nabarmena izan du. Gaur egun osasun mentalaren eremuan egonkorrak diren bideak zabaldu zituen.

Ibilbide bikaina izan du eta 26 urtez jardun du gure osasun administrazioaren zerbitzuplean, ukitutako herritarren premiak estaltzeko behar besteko osasun azpiegiturarik ez zegoen garaian; gainera, 34 urte bete ditu komunitatearen aldeko laguntza zeregina betetz eta taldearen konpromisoak eta profesionaltasunak herritarren eta pazienteen aldetiko atxikimendua lortu dute. Horrek guztiak gomendagarri egiten du moduluaren nolabaiteko jarraitasuna egituratzea eta horri gure herri administrazioek babesa ematea, betiere sare publikoak eskaintzen duen artapena osatzeko asmoz hobekuntza aukerak antzeman daitezkeen eremuetan, bereziki espazio sozio-sanitarioaren arloan.

Arartekoaren erakundeak hobekuntza eremu horietariko batzuk zehaztu ditu [Arartekoaren ikuspegitik EAEko haur, nerabe, gazte eta adinekoen osasun mentalaren artapenera egindako hurbilketa: erronkak eta aukerak](#) azterlan berrian.





5. Osasun administrazioak gobernu onerako printzipioak egokiro gauza ditzan, Guruzetako Laguntza psikosozialeko moduluaren Elkartearekin partaidetza, elkarrizketa, komunikazio eta informazio bideak berreskuratu eta abian jarri behar ditu.

Ildo berari jarraituz, [Osakidetzaren gobernu eta kudeaketa onerako erakunde eta antolaketa gomendioek](#), Aholku Kontseiluak ezarritakoek, gomendagarri egiten dute herritarrekin, pazienteen komunitatearekin eta Barakaldoko udal korporazioarekin partaidetza, komunikazio eta informazio markoak ezartzea.

6. Osasun Sailak eta Osakidetzak zerbitzua hartzeko prozesuan koordinazio, lankidetzeta eta komunikazio marko bat behar izango da Guruzetako Laguntza psikosozialeko moduluaren Elkartearekin, honakoak errazteko:
  - Pazienteen informazio klinikoaren transferentzia (historia klinikoak) egokia, prozesu hau berme guztiekin egin dela ziurtatzeko.
  - Pazienteak modu egokian bideratzea.
  - Laguntza jarraitasuna bermatzera zuzendutako neurriak hartzea, pertsona bakar bat ere ez dadin artapenik gabe geratu aldaketaren ondorioz.
  - Bide egokiak ezartzea pazienteak profesionalen talde berrietara moldatzea errazteko.

Hori guztia aurrera eramateko, bi alderdien inplikazioa behar izango da.

